

EKITAZIOA

IRLANDATIK LEZAMARAKO BIDAIA, ZALDIEN JAKINTZA HEDATUZ

Lezamako Zaldien Lagunen Taldeak 23 urte bete ditu, eta bertan dagoen eskaintza zabala da oso

J

ANE Moloney (Dungarvam, Waterfordeko konderrria, Irlanda, 1.953) Bilbora iritsi zen 1.981. urtean, denek imaginatu ditzazkegun arrazoiengatik. Garai horretan, ingelesa irakasten hasi zen Bizkaiko hiriburuko akademia batean. Halere, bazuen Janek zaldien inguruko jakintza handia, izan ere, British Horse Society-n eskuratu zuen hipika-irakaslea izateko beharrezkoa den titulua. Gainera, txikitatik praktikatu duen kirola da, eta gaur egun, bizi-modua bilakatu da.

Esan bezala, ingeleseko klaseak ematen zituen astean zehar Janek garai hartan eta, asteburuetan ordea, Punta Galea Klub Hipikora joaten zen zaldiz ibiltzera, zaletasuna bizirik mantentzeko. Jende dezente ezagutzeko abagunea eduki zuen bertan eta, denborarekin, zaldiz ibiltzeko klaseak ematen hasi zen. Orduan bururatu zitzaion bere elkarte zabaltzearen ideia eta, urte batzuk geroago, 1.986.ean, hain zuzen ere, Lezamako Zaldien Lagunen Kluba jaio zen. Olaxarre Baserrria da elkarte honen egoitza, eta Lezamako Garaioltza auzoan dago kokatuta, ingurune ezin hobean, eta natura lagun. Juan Butronek alokatu zion Olaxarre Baserrria, errota ere bazena, eta zaharberitze lanetan ere aritu zen indar guztiekin, Janeren proiektua aurrera ateratzeko.

Viruta eta Bat deituriko pottoka

eta zaldi batekin zabaldu zuten Lezamako Klub Hipikoa. Garai polita zen, izan ere, harrera bikaina eduki zuen eskolak ez bakarrik lezamatarren artean, baizik eta Bizkaiko beste herrietako lagunak artean ere. Orduan ez zegoen klub hipiko askorik eta itzal handiko elkarte bilakatu zen. Bitartean, zaharberitze lanekin jarraitzen zuten, lekua behar bezala atontzeko. Janek esan duen bezala, esfortzu handiko garaia izan zen baina ahaleginek saria dute azkenean.

Nagusiei bakarrik zuzendutako klaseak ematen zituen Janek orduan. Denbora zutenek hara joaten ziren astean zehar, klaseak hartzera, eta asteburuetan, jende gainezka zegoena adierazi du Janek. Proiektu berriak jendea erakartzen zuen, beraz. Bazter ezberdinetako familia asko joaten zen bertara eta, zaldi artean goiza pasatu ostean, denek joaten ziren elkarrekin inguruko jatetxeetara bazkaltzera. 90. hamarkada oso polita izan zen eta, gehienez, 25 zaldi edukitzera iritsi ziren, instalazioak ez baitira oso handiak. Hamarkada horretako amaieran hasi ziren hurrei zuzendutako klaseak ematen. Umeak zituzten bi amek Janeri esan zioten ideia polita izan zitekeela eta horrela hasi ziren txikienak Lezaman zaldiz ibiltzen. Ondorioz, zaldi eta monitore egokiak bilatu beharra zegoen. Arrakasta handia eduki zuen proiektu horrek eta, egun, espezialistak dira adin horretako gaztetxoek klaseetan.

Gaur egun lau irakasle daude Janekin batera; hauek dira Ana, haurren irakaslea, Enrique eta Maite, nagusien irakasleak, alegia, jauzi eta hezieran adituak, eta Eunate, ekinoterapiako monitora. Adimen urriko haurrentzako zuzendutako klaseetan oinarritzen da ekinoterapia eta harrera ezin hobea eduki du proiektu honek.

Agi dagoenez, edozein amets egitate bihur daiteke esfortzuekin. Nork esan behar zion Janeri Bilbora heldu zenean bere klub hipikoa edukiko zuena. Nahi duena joan daiteke Lezamara, beraz, eraiki dutena bere begiez ikusteko.

SARA GÁNDARA

Udan antolatuko dituzten jarduerak

Hainbat jarduera prestatuko dituzte uda honetan Lezamako Klub Hipikoan. Edonor joan daiteke klaseak hartzera, nagusi zein haur, izan ere, bertan dagoen eskaintza oso zabala da. Horrela, ikastaro berezia egingo dute uztailean, hurrei zuzendutakoa, hain zuzen ere. Asteleheneetik ostirala bitartean eta goizeko 10.00etatik 14.00ak arte, txikienek, hau da, sei urtetik gorakoek, zaldien inguruan jakin beharreko guztia ezagutzeko abagunea izango dute. Goizean goiz, zalditegiak mantentzeko lanetan arituko dira; ondoren, pottokak orraztu eta prestatuko dituzte; pottokaz ibiltzen ikasiko dute gero, ordubetez, eta, azkenik, Helen ingeleseko irakaslearekin klasea edukiko dute. Abuztuan ikastaroak egingo dituzte gutxienez bost hurreko taldeak sortzen badira. Hori gertatzen ez bada, ibilaldi eta mendiko arteekin jarraituko dute astean zehar, ikastaro berriarekin hasi bitartean. Lezamako Zaldien Lagunen Taldearen inguruan gehiago jakin nahi dutenek, Janerekin jarri daitezke harremanetan hurrengo telefono zenbakian: 944556511. >S.G.



Jane Moloneyk British Horse Society-n lortu zuen hipikako irakaslea izateko titulua. ARGAZKIA: S.G.



Zaldizko bat zaldia prestatzen ari da mendian zehar ibilaldia egiteko. ARGAZKIA: S.G.